



Ana Carrere

Alkatea



- [Funtzionamendua](#)
- [Eskumenak](#)
- [Alkateordeak](#)



Pedro Unanue

1. Alkateordea



Ainara Rodríguez

2. Alkateordea



Jon Zulueta

3. Alkateordea



Estibalitz Mujika



J. Agustin Alberro



Tokiko Gobernu Batzarraren Funtzionamendua

Alkateak aldez aurretik deiturik, Gobernu Batzarrak ohiko bilera **astean behin** egingo du, eta apartekoa, Lehendakariak hala irizten dioenean.

- **Tokiko Gobernu Batzarraren bilerak ez dira jendaurrekoak izango**
- Gai Zerrenda berrogeita zortzi ordu aurretik burutuko da eta erabakien laburpena iragarki taulan erakutsiko da handik lau egunetara, bozketen ondorioekin, baleude, eta epe berean Udal Taldeei bidaliko zaie.
- Batzordeko bertako kideak soilik bertara daitezke bileretara, baldin eta Lehendakariak edozein Udalkide bertaratzeari egoki ez baderitzo behintzat.



Tokiko Gobernu Batzarraren eskumenak

Apirilaren 2ko 7/1985 Legeko, 23. artikulua arabera.

1. Alkateak eta legean ezarritako zinegotzikopuruaren herena baino gehiagokoa ez den zinegotzi-kopuru jakin batek osatzen dute tokiko gobernu-batzarra. Alkateak izendatzen eta kentzen ditu askatasunez, eta osoko bilkurari ematen dio horren berri.
2. Tokiko gobernu-batzarrari hauek dagozkio:
 - a). Alkateari bere eskumenak gauzatzeko laguntzea.
 - b). Alkateak nahiz beste udal-organoren batek eskuordetzan emandako edo legeek aitortutako eskumenak.
3. Alkateordeek alkatea ordeztzen dute, beren izendapen-hurrenkeraren arabera, alkateak kargua hutsik laga nahiz bera kanpoan aurkitu zein gaixorik dagoenean. Alkateak askatasunez izendatzen eta kentzen ditu alkateordeak tokiko gobernu-batzarreko kideen artetik, eta tokiko gobernu-batzarrik ez badago, zinegotzien artetik.
4. Alkateak tokiko gobernu-batzarreko kideei eman diezaieke zenbait eskumen gauzatzeko eskuordetza, eta tokiko gobernu-batzarrik ez badago, alkateordeei; hala ere, eginkizun zehatzetarako, edozein zinegotziri eman diezaioke eskumenen eskuordetza berezia, nahiz eta tokiko gobernubatzarreko kide ez izan.



Alkateordeen izendapena eta eskumenak

Alkatearen ordezkokoak, haren funtzio guztietan, hura ez dagoenean, gaixo denean edo bere eskumenak gauzatzea eragozten dion egoeraren batean dagoenean.

Halaber, alkatearen funtzioak egiten dituzte, kargua hutsik geratzen denean, alkate berria karguaz jabetu arte, saioaren batera alkateak azaldu ezin duenean, eta abar...

Izendapena

Alkateak berak izendatzen eta kargugabetzen ditu, nahierara. Tokiko gobernu batzarreko kideak izaten dira alkateordeak, eta, gobernu-batzarrik ez den kasuetan, zinegotziak.

Gehienezko Kopurua

Tokiko gobernu-batzarreko kideen kopuru bera, eta, horrelakorik ez bada, gehienez ere zinegotzien legezko kopuruaren heren bat.

Eskuordetza

Alkatearen ahalmenen eskuordetza alkatetzaren dekretu baten bidez egingo da.

Alkatearen Ordezkapena

Izendatuak izan diren hurrenkera berean ordezkatutako dute alkatea.

Eskumenak

- Alkatea kanpoan, gaixo, ezinduta edo oportretan badago, alkatearen ahalmen guztiak izango dituzte, eskuordetzarekin edo gabe, kasuan kasu.
- Alkateak berriazko eskuordetza egiten badu, alkateordeek ordezkatuz egin daitezkeen ahalmen guztiak egingo dituzte, Toki-Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea kontuan izanda.

